

IKAZTEGIETA / Ikasleen aurrean irakurtzeko gurasoen txanda da

Ikaztegieta 'Gurasoak irakurle' ekimenean ariko dira 10-15 minutuko ipuinak kontatzen eta irakurzaletasuna bultzatuz.

NEREA URBIZU

Ikaztegieta ikastetxean datorren astean, asteartean, Gurasoak irakurle ekitaldia izango da. 15:40ean bost gurasok, ikasle, guraso, nahiz irakasleen aurrean 10-15 minutuko irakurketa bat egingo dute, nahi duten gaiari buruz, helburua irakurzaletasuna bultzatzea izanik. Bakoitza ikasgela batean izango da. Aurten lau hizkuntza izango dira: euskara, gaztelera, ingelesa eta ama errumaniar baten eskutik errumanieraz.

Adin ezberdinak nahasirik izango dira entzuten eta 7 bat taldetan banatuta. Talde bakoitzean 12-14 bat lagun izango dira. Maria Garai liburutegiko arduradunak gonbidapenak eta irakurleek eskatutako liburuak prestatu ditu honetarako. Gonbidapena, argitu du Inma Delgado ikastetxeko zuzendariak, ikasle guztiei egin zaie, zein irakurketa-ipuin egongo diren, gutxi, gorabehera, esanez. Aurten gehienek errumanierako irakurketan egon nahi zuten.

Nahi duten ipuina, nahi bezala

Oraingoan gurasoek irakurriko dute, haiek erabakitako ipuina, haien gustukoa, eta borondatez, guztiz librea da irakurriko dutena. Ikasgela nahi badute ere zertxobait egoki dezakete. Aurten 5 gurasok eskaini dute haien burua irakurtzeko. Baina urtean zehar, irakasleek eta seigarren mailako ikasleek ere irakurtzen dute.

Helburua: irakurzaletasuna

Helburua honakoa da: Irakurzaletasuna bultzatzea. Ikasleek ikusi behar dute guraso eta aiton-amonek ere irakurri egiten dutela. Hau da, eskolatik kanpo egiten den zerbait ere badela irakurtzea. Lehenengo hiruilabetean irakasleek irakurri zuten. Datorren irakurketa berezia, berriz, 6. mailakoen eskutik etorriko da, hirugarren hiruilabetean.

Ez da hau egiten duten lehenengo urtea, bost urte inguru dauzka ekitaldi berezi honek. 15:40a aldera hasiko dira, eta 16:00etarako bukatuta izango da.